



Lasarte-Oriako hilerria lorez apainduta Domu Santu egunean.- Aurtengoan, larunbatean hasi zen azaroa. Familiek hilabete horretako lehen eguna, Santu Guztien eguna baliatzen dute euren zendutako senideak omentzeko. Hala egin zuten larunbatean ere. Beste itxura bat hartu zuen Santa Barbara azpian kokatuta dagoen hilerriak. Familiek loreak jarri zituzten euren senideen hilobietan, hilerriari kolorea emanez. Era berean, herritar askok hilobiak txukuntzeko eta garbitzeko aprobetxatu zuten hilerrira egindako bisitaldia. Autoz joan ziren batzuk, autobusez beste batzuk, eta goizeko eguraldi ona baliatuz oinez egin zuten askok hilerrirainoko bidea, Zabaleta auzoan barrena. Urtero gertatzen den legez, jendez eta lorez bete zen hilerria, ukitu koloretsua emanez tokiari. Arrosak, krabelinak, gladioloak, margaritak... mota guztietako loreek apaindu zuten larunbatean Lasarte-Oriako hilerria. Lore-saltzaileek nabarmendu zuten aurtengo salmenta ez dela batere txarra izan, nahiz eta krisiaren eraginez lore gutxiago erosten diren azkenaldian. Eguraldi ona lagun, herritarrek euren zendutako senideak gogoan izan dituzte beste urte batez; era berean, urtero bezala hori ere, itxura alaiagoa hartu zuen hilerriak larunbatean, lorez eta kolorez apaindu baitzuten bertara hurbildu ziren herritarrek.

2 ORDENANTZAK

2015eko Ordenantza Fiskalen proiektua osatu dute

Datorren urteko Ordenantza Fiskalen proiektuaren zirriborroa prest dago, Estitxu Alkorta Ogasun batzordeko buruak joan den astean azaldu zue-nez. Bihar onartuko dute egitasmoa; ezohiko udalbatzarra egingo dute. Aurten lehenengo, alderdi politiko guztiek hartu dute parte proiektuan.

3 INAUTERIAK

Datorren urteko Inauterietako gaia Ipuinak izango da

Parte-hartze prozesu baten ostean, 45 proposamen jaso dituzte eraikin publikoetako postontzietan eta otsailaren 14an izango den festa handiko gaia Ipuinak izango dela erabaki zuten konpartsek. Ipuinez gain, komikiak edo marrazki bizidunak ere gaiaren barnean sartzen direla adostu dute.

4 MUSIKA TOPAKETAK

Hasi dira Danok Kidek antolatutako X. Musika Topaketak

Francisco Escudero kontse-batorioko ikasleek eskaini zuten aurtengo topaketetako lehen emanaldia, ostiral arratsaldean, Brigitarren komentuan. Guean berriz, 'Figurantes' antzezlanaren txanda izan zen; Oscar Terol eta Asier Hormaza izan ziren kultur etxeko oholtzan.



LASARTE ASEXORIA

Doako sexologia zerbitzu publikoa

Tel: 943 36 39 58
Lasarteasexoria@lasarte-oria.org
Sexuen arteko bizikidetzarako emakumeen zentroa
Aralar plaza 5, Lasarte-Oria



Hainbeste elkar maite badugu... zergatik ez dugu elkar ulertzen?



Zer egin dezaket nire bikotekidea hain jeloskor...



Sexurako gogoan adinarekin joan egiten al da



Ordutegia

Emakumeen zentroan
Ostiraletan
16:00-20:00

Gaztelekuan
Osteguna
18:00-20:00

Bestela deitu telefonoz edo bidali mezu bat helbide elektronikora

POLITIKA

Ordenantza fiskalen proiektua osatu dute

Lehen aldiz, alderdi politiko guztien parte-hartzea izan du tasak eta zergak finkatzeko prozedurak

2015eko Ordenantza Fiskalen zirriborroa prest dagoela eta Ogasun batzorde buruak agerraldia egin zuen. Bihar onartuko dira datorren urterako ordenantzak baina aurrez, alderdiek emendakin ezberdinak eztabaidatuko dituzte. Ezohiko udalbatzarra egingo dute 10:00etan.

TXINTXARRI

Estitxu Alkorta Ogasuneko arduradun politikoaren ustetan "bermea, seriotasuna eta koherentzia osoa" ematen dion proiektua da asteartean Ogasuneko Batzordean aurkeztu zutena.

Bigarren aldiz parte-hartze prozesu bat jarri dute martxan eta Udaleko arlo tekniko eta alderdi politiko guztiek proposamenen erredakzioan, lanketan eta bideratze lanetan parte-hartu dute.

Horrela, tasak eta zergak gehienez ere urteko KPIa (%0,7a) igotzea adostu dute gehiengo batez. Gainera, lau helburu jakin betetzeko neurriak hartzea erabaki dute: "Zerbitzuen defizita murriztea, ekonomia lokala susta-

tzea, laguntza behar duten taldeak babestea eta egun indarrean dagoen bonifikazio sistema mantentzen saiatzea da gure asmoa", adierazi zuen Alkortak.

Hartutako neurriak

Hori lortzeko, besteak beste, sortu berri diren enpresek zenbait tasetan (ura, zaborrak eta pasabideak) hobariak izatea onartu dute; kamioietan, atoietan eta autobusetan lbigailuen Gainera Zerga %5ean murriztea adostu dute (garraio enpresak Lasarte-Orian kokatu daitezzen pizgarri gisa) eta laugarren urtez, IBIa, Ondasun Higiezinari Buruzko Zergaren Tipoa, oso gutxi kargatzea erabaki dute. Berrikuntza gisa, zaborraren tasa kobratzeko epea aldatu egin da, apirilaren



Estitxu Alkorta Ondoasuneko eta Ogasuneko Udaleko arduraduna hedabideei azalpenak ematen.

1a eta maiatzaren 15a bitarteko epera aldatu dute herritarrei tasen eta zergen ordainketa erraztu asmoz eta ordaindu beharreko kontzeptu fiskal guztiak epe jakin batean (uztaila hasieran) pilatu ez daitezten. Azkenik, kultur-etxean, Gaztelekuan eta Emakumeen Zentroan ematen diren ikastaroetan Lasarte-Orian erroldatuak dire-

nantzat %40ko hobaria onartu dute eta %75ekoa Gazteriara zuzendutako ikastaroak badira.

Estitxu Alkorta Ogasuneko arduradunak azaldu zuenez ordea, aipatutakoak "lerro nagusiak" dira eta "aldaketaren bat" izan daitekeela ohartarazi zuen: "Hau da onartu dugun zirriborroa, horrek ez du esan nahi emendakinen bitartez zer-

txobait aldatu ezin daitezkeenik. Dena den, bi hilabeteko lanketaren ostean alderdi politiko guztien adostasunarekin onartutako proiektua dela azpimarratu nahiko nuke".

Bihar, 10:00etan egingo dute ezohiko batzarra eta bertan eztabaidatuko dira proiektua onartu aurreko azken xehetasunak.

EH Bildu tasak izoztearen alde

EH Bilduk ohar bidez tasen inguruko jarrera azaldu du. "Ezohiko batzarrean bozkaturiko den PNV-PP-PSEren ordenantza fiskalari proposamenak 2015eko KPIaren igotzea aurreikuspenaren oinarrituta tasen %0,7ko igotzea jasotzen du. EH Bilduk ez du bat egiten irizpidearekin eta tasak izoztearen aldeko zuzenketa aurkeztu du". Euren ustez, KPIaren eboluzioa kontutan hartu behar da eta 2013ko irailetik 2014ko irailera KPIan eman den aldaketaren emaitza negatiboa izan da Hego Euskal Herrian. "Ez dugu uste zuzena denik udal tasak igotzea merkaturko prezioen indizea jaitsi denean". Bestalde, "Kultur-etxe, Gazteleku eta Emakumeen zentroko ikastaroen tasetan aldaketa

garrantzitsua proposatzen da. Ikastaro guztietan formula bakarra aplikatzen oinarritzen da eta ikastaroen garestitzea dakar".

Kultur-etxean 30 ordu baino gutxiagoko ikastaroa, 15 pertsonakin, 40 euro kostatuko da, "aurten baino 12 euro gehiago, %44ko igotzea. Berdina Gaztelekuan: 30 ordu baino gutxiagoko ikastaro bat, 15 pertsonakoa 10 euro kostatuko da, egun baino 2 gehiago, %25ko igotzea. Eta Emakumeen zentroan ikastaro batean izena emanez gero, prezioen aldaketak garestitze eta merketze aldeko emaitza ezberdinak emango ditu, (...) bitan izena eman nahi izanez gero prezioak %72 igotzea dira". Horrela, beste zuzenketa bat aurkeztu dute tasak dauden moduan man-

tentzearen alde. "Helburua ahalik eta ikastaro eta zerbitzu gehien eskaintzea izan behar da, muga ekonomikorik jarri gabe".

Azkenik, "iaz PNV, PP eta PSEek adostutako tasa", irabazi asmorik gabeko gizarte mugimenduei ezartzen zaien irizpidea eta alderdi politikoak modu berezian tratatzen dituen udal lokalen erabilereatik kobratuz bertan behera utzi nahi dute. "Neurriak alderdi txiki edo berriei, Podemos kasu, lana zailtzera zuzendua dagoela ulertzen dugu, mugimendu berrien antolaketa nahiz parte-hartzea mugatzeko eta diru-sarrera handiak dituzten betiko alderdien administrazioko esku-hartzea mantentzeko estrategia zital eta interesatua dela irizten dugu".

PSE-EEren eskaera

EH Bilduri eskaera bat egin dio PSE-EEko bozeramaile Jesus Zaballosek, ohar bidez: "Udal gobernuari eskatu nahi diogu gure herriko kaleetan dauden presoan aldeko afixa guztiak kentzeko. Lasarte-Oriako kaleak gisa horretako kartelez beteta daude".

"Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoien XIX. edizioa egin zen joan den asteburuan, eta hori baliatuz, ezker abertzaleak presoan aldeko kartelez bete ditu Lasarte-Oriako kaleak. Ez dute denon arteko elkarbizitza baketsu bat eraiki nahi; horren adibide garbia da kartelen afera hau", adierazi du Zaballosek oharrean. "Ezker abertzalea ez da aldatu denbora honetan guztian;


beti bezain erradikalak eta intoleranteak izaten jarraitzen dute".

"Gure herrian oso garrantzitsua den kirol ekitaldi bat politikoki bihurtu du EH Bilduk. Era berean, Lasarte-Oriako talde sozialistarentzat onartezina da EH Bildu alderdiko zinegotzi bat krosean ateratzea presoan aldeko pankarta bat eramanez", salatu du Zaballosek, publiko egin duen ohar horretan.

PSE-EEren bozeramaileak eskatu dio EH Bildu koalizioari "erretiratzeko" kartel horiek kaleetatik, bi arrazoi-gatik: "Herritarren duintasuna errespetatzeko eta, batez ere, Lasarte-Oria herri garbia eta zaindua izan dadin".

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Jon Altuna
E. Iñigo Gonzalez
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier
Odriozola, Jone M. Hernandez,
Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu
Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

INAUTERIAK

Inauterietako gaia Ipuinak da

Ipuinen barnean marrazki bizidunak eta komikiak ere sartu dituzte konpartsek, otsailaren 14ko festan mozorrotzeko

Iaz Musika izan bazen Inauterietako gaia, 2015ekoa Ipuinak izango da. Denera 45 proposamen jaso dituzte eraikin publikoetako postontzietan, mota guztietakoak. Ostegun iluntzean kultur-etxean egindako bileran erabaki zuten konpartsek otsailaren 14an, larunbatean, izango den festa handiko gaia Ipuinak izango dela. Hori bai, Ipuinak izena jarri badiote ere, argi utzi dute komikiak edo marrazki bizidunek ere lekua badutela.



Ostegunean bildu ziren konpartsa ezberdinetako kideak Udal ordezkariekin.

TXINTXARRI

Ostegunean erabaki zuten konpartsa ezberdinetako kideek datorren urteko gaia "Ipuinak" izango dela. Gaia zabala da eta ipuinen barruan komikiak eta marrazki bizidunak ere sartu nahi izan dituzte.

Denera 45 proposamen jaso dira eraikin publikoetan jarritako postontzietan eta horietako hiruren artean izan zuten azken eztabaida. Beldurra, Ipuinak eta Zinema izan dira finalistak eta azkenean, 2015eko gaia "Ipuinak" izatea adostu zuten.

Datorren urtean Inauterietako larunbata otsailaren 14a izango da, San Valentín eguna hain zuzen eta giro

hotza espero bada ere, kaleak kolorez jantziko dira ziur asteburu horretan.

Urtarrilaren hasieran berriro bilduko dira konpartsa guztiekin Taxio Arrizabalaga Gazteria, Kirola eta Festen zinegotzia eta Rosa Illarremendi teknikaria bilera ireki batean, festaren azken xehetasunak lotzeko.

Gaietan, aniztasuna

Inauterietako gaia aukeratzeko prozesua herritar guztiei zabaldua egon da eta aukera izan dute lasarteoriatarrek euren proposamenak helarazteko.

Besteak beste, animaliak, munduko flora eta fauna eta zoologikoa proposatu dituzte;

baita "zorriak" edota "espezie inbaditzaileak" ere gai bitxi bezala.

Zinemaren aldeko apostua egin dute beste batzuek, beldurra ere azaldu da, itsasoa, erromatarrak, herrialdeetako gastronomia, fantasia, Erdi Aroa, piratak, mendebaldea edo herri-kirolak ere bai esaterako.

Baina azkenean, gaiaren zabalatasuna eta egokitasuna kontutan hartuta, ipuinen aldeko apostua egin zuten, komikiak eta marrazki bizidunak barnean hartuz.

Azken momentura itxaroten egon gabe, pixkanaka mozorroa aukeratzeko eta prestatzen hasteko eskatu dute antolatzaileek.

KULTURA

Kameratoiaren 10. edizioa

Euskaltzaleen Topaguneak Kameratoia Euskal Herriko Ikus-entzunezkoen 10. Rallya antolatu du. Durangoko Azokako Irudienea Ikus-entzunezkoen plazaren baitan izango da. Lehiaketak 48 orduko formatua mantenduko du. Hala, abenduaren 6an, parte hartzaileek aurkeztu beharreko film laburren gaia eta bertan islatu beharko dituzten ezaugarrien zerrenda jasoko dituzte. Momentu horretatik, kameratoilariak 48 orduko epea izango dute gehienez sei minutuko iraupena izango duen film labur baten gidoia osatu, grabazio lanak egin eta edizio lanak burutzeko. Abenduaren 8an, goizez, parte hartzaileek bideoak entregatu beharko dituzte, eta arratsaldean, gala ospatuko da Durangoko Azokako Irudienea ikus-entzunezkoen plazan (Durangoko Zugaza zineman). Bertan, lan guztien emanaldia eskainiko da eta epaileek ondorengo sariak banatuko dituzte: Lehen Saria, 1.200 eurokoa izango da; bigarrena, 900 eurokoa eta hirugarren saria eskuratzen duen taldeak, 600 euroko txekia jasoko du.

EUSKARA

Errigoraren udazken-kanpaina abian

'Nafar Hegoaldeko uzta euskarari puzka' izeneko kanpaina prestatu du Errigorak. Herri desberdinetako hainbat elkartetan parte hartuko dute Errigoraren udazkeneko kanpaina; Ttakun KE dago horien artean. Iaz bezala, produktuz betetako saskiak erosi ahalko dira, Nafarroa Hegoaldeko euskarari eta denen elikadurari bultzada bat emateko. Antolatzaileek nabarmendu dute "ahalegin berezia" egin dutela ekoizle gehiagoren produktuak sartzeko; 10 izan dira aurten, iaz baino 5 gehiago. Saskiak eskatzeko epea irekita dago, eta azaroaren 12an itxiko da. Azaroaren 17tik 30era banatuko dira saskiak, eta abenduaren 1etik 7ra ordaindu. Saskien prezioa 50 eurokoa da. Ttakunen eta Muntterin egin dezakete herritarrek saskiaren eskaera. Bertan datuak hartuko dira eta ondoren, esango da zein egunetan ordaindu eta jaso. Jasoko den diruaren %25 Erriberako ikastoletara, Erriberako AEKra eta euskaraz bizi eta ikasi herri ekimenaren Hamarraz proiektura bideratuko da.

LITERATURA

Amodiozko gutunen lehiaketa

Amodiozko gutunen XXIII. edizioa martxan jarri du Bergarako Jardun elkarteak. Lehiaketa honetan 2000an edo lehenago jaiotako edozein pertsonak parte har dezake. Baldintzei dagokienez, lan guztiak jatorrizkoak, argitaratu gabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dute eta gutun forma izan, besteak beste. Oinarriak eta sarien inguruko informazio guztia www.jardun.org helbidean dago. Lanak aurkezteko azken eguna urtarrilaren 7a da eta irabazleak 500 euroko saria eskuratuko du.

Sasoeta Sasoitu! parte-hartze prozesuaren azken fasea



Sasoetan bizilagunekin egin ten ari diren Sasoeta Sasoitu! egitasmoa azken fasean sartu da. Udalak auzoko hainbat pasabide arkupe eta espazio ireki bilakatu nahi ditu eta honetarako zenbait behe solairu eraitsi eta espazio publiko berriak sortuko ditu.

Hain zuzen, espazio berri hauetan zer egin erabakitzeko abiatu du auzotarren parte hartze prozesua. Aurreko

asteen bizilagunen azken proposamenak jaso eta larunbatean, azaroak 8, Gaztelekuan bertan 10:30ean, auzo mailako espazio publikoaren diseinua aukera eta proposamen zehatzak aurkeztuko dizkie Hiridunak arkitekto taldeak.

Orain arte bilera ezberdinetan bizilagunek auzoan ikusten dituzten beharren eta gabezien diagnostikoa egin dute eta guzti hauek izan ditu taldeak abiapuntu.

Bertso desafioa ostiralean Jalgin

Bertso eskola indartu eta bide batez herritarrek bertsoari gerturatu asmoz, "Lehen ostiraletako bertso-desafioak" antolatu ditu Lasarte-Oriako Earra! bertso eskolak herrian.

Azaroan hasi eta otsailera bitarte, bertso eskola ezberdinei desafioa luzatuko diete Earra!-ko kideek azaldu moduan.

Bertso desafioa Jalgin

Lehenengo bertso desafioa ostiralean izango da, azaroaren 7an, Jalgi kafe antzokian, gaueko 22:30ean.

Bertan, Lasarteko bertso-eskolako Beñat Iguaran, Asier Azpiroz eta Ane Labakak kantatuko dute Tolosaldeko Harituz Bertsozale Taldeko Unai Mendizabal, Imanol Irazustabarrena eta Iñigo Gorostazu-



Jalgin izango dira bertso eskolen arteko desafioak.

ren aurka. Desafioaren irabazleak hautatzeko, berriz, entzuleek egingo dute epaile lana eta eurek erabakiko dute.

Ane Labakak azaldu duenez, "hurrengo hilabeteetan ere emango diegu desafioei segida. Horretarako, abenduaren 5ean Hernaniko bertso-eskolakoak izango ditugu

gurean, urtarrilaren 16an Andoaingoak eta, azkenik, otsailaren 6 ean Azpeiti, Errezil eta Azkoitiko Erribera bertso-eskolako lagunak".

Saio hauetara gerturatzeko gonbidapena egiten diete herritarrei bertso eskolako kideek.

X. Musika Topaketak hasi dira

Ados Teatroaren 'Figurantes' obra ere ikusteko aukera izan zen ostiralean

Danok Kidek antolatuta, hamargarren urtez ekin diete Musika Topaketei. Ikasturteko lehen kontzertuan, Francisco Escudero kontserbatorioko kantu korala izan zen entzungai Brigitarren komentuan. Kultur-etxean berriz 'Figurantes' antzerkia eskaini zuen Oscar Terolek eta Asier Hormazak osatutako bikoteak, Ados Teatroaren eskutik. Umorea eta bizitasuna oinarri hartuta, herri txiki eta lasai bateko gora-beherak kontatu zituzten ikus-entzuleen barre-algara artean.

TXINTXARRI

Francisco Escudero Musika Kontserbatorio Profesionaleko ikasleek errezitaldi lirikoak eman zuten ostiral ilunabarrean Brigidatarren komentuan. Jende asko hurbildu zen doinu lasaiak entzute eta arratsalde pasa ederra egin ahal izan zuten.

Zuzendari lanetan Ainhoa Merzero aritu zen eta piano-jolea berriz, Javier Perez de Azpeitia izan zen. Bien artean primeran gidatu zuten euren ikasle koadrila.

Denera hamalau bakarlarari aritu ziren kantuan, zortzi soprano, bi kontratenore eta tenore, mezzosoprano, baritonoa eta baxu bana.

Besteak beste, Mozart, Schuman, Rossini edota Vivaldi autoreen hamabi doinu abestu zituzten, XVIII. eta XIX. mendeak.

"Figurantes" obra

Oscar Terol eta Asier Hormaza aktore ezagunek "Figurantes" gaztelaniazko antzerkia eskaini zuten ostiral gauen Manuel Lekuonan.

Carlos Zabala zuzendari duen lanak herri txiki eta lasai baten istorioa kontatu zuen, zinema errodaje batek hankaz gora jarri zuen herri baten kontakizuna hain zuzen.

Obrak umorea zuenez ardatz, auditoriora hurbildu ziren lasarteoriatarrek barre asko egin zuten emanaldian.



Goian, Francisco Escudero Kontserbatorioak emandako kontzertua; behean, Oscar Terol eta Asier Hormaza, lanean.

Gaixo dauden presoak aske uzteko deia

Ibon Fernandez Iradi herritarra eta bera bezala gaixo dauden presoan askatzea eskatzeko manifestazio jendetsua egin zen ostiralean Okendotik abiatu eta erdigunear barrena, "Giza eskubideak, konponbidea, Bakea, Osasun egoera larrian dauden presoak askatu!" lelopean.

Oholtzan txalaparta doinuek lagunduta, Ibonen argazki erraldoia zabaldu zen martxari ekiteko. Buruan, Fernandez Iradiren senide eta lagunak izan ziren.

Amaieran, esklerosi anizkoitza duen Fernandez Iradi-

ren epaia martxora arte atzeratua izan dela jakinarazi zuten; ostegunear hartu zuen erabakia epaileak.

Epaileak beste froga mediku bat eskatu du eta hau aztertu ostean, martxoan emango du ebazpena "Frantzia, legeak proba bakarra nahikoa dela dio". Honakoa hirugarren azterketa izango da presoak bere kaleratzea eskatu zuenetik, "duela ia bi urte" salatu zuten. Ibon bezala gaixo dauden presoak askatu eta giza eskubideak betetzeko eskaera egin zuten hauen izenak aipatuz.



Okendotik abiatu zen manifestazioa ostiral iluntzean; deialdiak bat egin zuen hilabeteko azken ostiraleko mobilizazioarekin.

DANTZI TRADIZIONALAREN IKASTAROA

AZAROAN
astearte eta ostegunetan
15:00etatik 17:00etara

IZEN EMATEA
Tel.: 943 371448
edo
Gibekunen

Ttakun Atakatu mingaina



(B) Diru (B)eltza, enplegu (B)eltza

“A” gizartea
lortzeko

eskatu beti faktura

Faktura eskatzen duzunean, ziurtatzen ari zara zure diruaren zati bat guztion ongizaterako izango dela hezkuntza, azpiegiturak, enplegua eta gizarte zerbitzu bihurturik.

 **ZATOZ EKONOMIA
GARDENERA**

www.ekonomiagardena.net



 **Gipuzkoa**
BERRIA

FUTBOLA.

Bana berdindu zuen Ohorezko erregionalak larunbatean

Partidua amaitzeko bost minuturen faltan sartu zuen Martutenek berdinketaren gola

Nahi, baina ezin. Hiru puntuak eskuan zituen Ostadar SKTk, baina azkenean batekin konformatu behar izan zuen. Denboraldiko 8. gola sartu zuen Gorka Britek lehen zatiaren hondarrean, eta erregionalak garaipena eskuratuko zutela zirudienean, gaizki defendatutako falta batean berdindu zuen norgehiagoka Martutenek.

IÑIGO GONZALEZ

Partidarik ez dute galdu Michelinen Ohorezko erregionalak, baina irabazi ere ez. Lau norgehiagoka, eta beste hainbeste puntu. Larunbatean eskuratutakoarekin 7 dituzte Mikel Medina eta Gabi Sanchezen mutilek. Lanean jarraitzea besterik ez dute, jaitsiera postuetatik irteten saiatzeko. Zarautzen aurka jokatu dute datorren asteburuan.

Martutene nagusi hasieran

15 puntu ditu talde donostiarrak, eta laugarren postuan dago sailkatuta. Larunbat arratsaldean erakutsi zuten hori ez dela kasualitatea.

Lehen zatian Martutene izan zen jaun eta jabe. Atzeko lerro sendoa eta aurrelari bizkorak: horiek izan ziren talde donostiarraren armak. Oso pase gutxi behar izan zituzten Iker Hernandezen ate ingurura iristeko. Aukera asko ez zituzten sortu, baina oso

garbiak izan ziren horiek denak, bat bereziki; langara jaurti zuen Martuteneko aurrelariak, Ostadar SKTko jokalarien zorionerako.

Medina eta Sanchezen mutilak ez ziren fin ibili baloiarekin. Martutenek oso ongi presionatu zuen eta Ostadarreko atzelariak luze jokatzeko beste erremediorik ez zuten izan askotan. Aurrelariak ez zituzten baloi asko jaso eta apenas sortu zuten arriskurik lehen zatian.

Hala ere, horrek ez du esan nahi Ohorezko erregionalak kalitatetik ez dutenik. Aurrelariak, batez ere. Gorka Britek beste behin erakutsi zuen sasoi betean dagoela oraindik, eta aldaratze bat baliatu zuen gol eder bat sartzeko, lehen zatiaren hondarrean. Jokaldi horrekin amaitu zen lehen zatia.

Kolpe gogorra

Indartsuago irten ziren Ostadar SKTko jokalariek bigarren zatian, emaitza bere horretan



Irudian, Ohorezko erregionalen larunbateko hasierako hamaikakoa.

mantentzeko asmoarekin. Aukerak eduki zituzten bigarrena sartzeko, baina barkatzen duenak ordaindu egiten du askotan, eta hala gertatu zitzaion Ohorezko erregionalari. Gaizki defendatutako falta batean, aldaratze bat baliatu zuen Martutenek banakoa ezartzeko. Markagailua ez zen gehiago mugitu.

Nesken lehen garaipena

Denboraldiko lehen garaipena eskuratu zuten lurralde mailako erregional neskek. 0-2 irabazi zuten Antigua Luberriren zelaian, hiru puntuak poltsikoratuz horrela.



Gogotik borrokatu zuten bi taldeek Michelinen jokatuako norgehiagokan.

ATLETISMOA.

239 herritar irtengo dira Behobia-Donostian

Aurten 50. urteurrena bete-ko du Behobia-Donostia lasterketa ospetsuak. Denera 30.000 lasterkari bilduko dira Behobiako irteera marran eta horietatik 239 lasarteoriatarak izango dira. Azken urteotako kopuru altuena da, iaz esate baterako, 192 lagunek amaitu zuten lasterketa eta duela bi urte 196 izan ziren Boulevardeko helmuga marra zeharkatu zutenak.

Emakumezkoek dagokienez, Fortunako kideek emandako datuen arabera, 30 izango dira azaroaren 9an, datorren igandean (10:00etan), zapatilak lotuko dituzten neskek. Iazkoarekin alderatuta zortzi neska gehiago dira.

Denak prest daude dagoeneko eta azken entrenamenduak egiteko garaia da.



Iazko talde-argazkia. Garraio publikoa erabiltzeko eskatu du antolakuntzak.

Iazko denborarik onena Raul Gomez Margallok egin zuen (1:09:50) eta emakumezkoetan Mari Carmen Olaso izan zen azkarrena (1:34:27).

Ibilbidean aldaketa

Jakina denez, aurten ibilbideak aldaketa aipagarri bat jasan du, Lezoko txirristak

edo gorabeherak saihestu eta Erreterria eta Pasaia Antxo erreperatu dituzte: "Ibilbideak 140 metro gehiago ditu eta 164tik 192ko desnibel positibora pasa da", aldapatsuagoa izango dela alegia. Bestalde, 8. Behobia Txikian 2800 haurrek parte-hartuko dute eta estreinakoz egingo den Behobia Gaztean 225ek.

MENDI DUATLOIA.

Endika Gartzia zazpigarren egin du Euskal Herriko mendi duatloi txapelketan, Zallan

Joan den igandean Euskal Herriko mendi duatloi txapelketa jokatu zen Zallan, Bizkaian. Probaren luzera honakoa izan zen: 4 kilometro korrika, 15 km. mendiko bizikletan, eta azkenik 2 km korrika berriro. Denera 160 partaide atera ziren; Jon Larruzea 1:09ko denbora eginez mutiletan eta Meritxell Henales emakumezkoetan, orubete eta 32 minutuko kronoarekin, izan ziren txapeldunak. Herritarren artean lehena Endika Gartzia izan zen zazpigarren postuan helmugaratuta, 1:13 denborarekin. Zigor Iriondo 40. izan zen 1:24 denborarekin eta azkenik Iñaki Letamendik 112. postuan amaitu zuen proba (1:42).



Endika Gartzia Zallako probako une batean.

Arg: I. Letamendia

Agenda

Asteazkena, 18:00etan Haur liburutegian



Ipuinen munduan barrena

Herriko Kontukantoi bikotearekin ipuin kontalari saioa izango da asteazkenean haur liburutegian. Honakoa 6, 7 eta 8 urteko umeei zuzenduta egongo da. Bea eta Cesar kontalariak ohi bezala, ipuin liluragarriak marrazkiekin lagunduko dituzte. Haur liburutegiko arduradunek azpimarratzen dute, saiora umeak bakarrik sartuko direla eta puntual hasiko direla ere. Izan ere, behin saioa hasita, ezingo da bertara sartu kontakizuna bera ez eteteko. Doan.

Jaialdia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Azaroak 15, 19:00etan

XI. Akordeoi Jaialdia izango da Zero Sette akordeoi orkestraren eskutik. Honetan Joxean Goikoetxea eta Joao Frade & Munir izango dira emanaldian herriko akordeoi taldearekin. Sarrera 3 eurokoa izango da eta 16 urte azpikoek sarrera dohainik izango dute.

Usurbil

Musika

SUTEGI

Ostirala 7, 22:00etan

"Piano bat bertotan. Gurekin abestu nahi?" emanaldia izango da. Sarrera aurrez erosita 6 euro, egunean bertan 7 euro.

Astigarraga

Zinea

KULTUR-ETXEA

Ostirala 07, 20:00etan

'Ezra' filma ikusi ahal izango da Zine Afrikarra zikloaren baitan. Sierra Leonako errelitatea gertuagotik ezagutzeko parada eskaintzen du luzemetraiak. Azaroaren 21a bitartean hainbat izango dira doan ikusi ahal izango diren filmak. Azaroaren 14ean berriz, "Virgen Negra" filma izango da ikusgai. Kasu honetan Mozambiqueko emakumeen sexualitateari buruzko dokumentala da. Zikloa Harituz elkarteak antolatuta du.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 07, 22:00etan

"Relatos Salvajes" filmaz gozatu ahal izango da Okendo zinema taldeak antolatzen duen Zine Forum saioan. Sarrera Interneten erosita 4,24 euro eta bertan 4,70 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 08, 20:00etan

"Relatos Salvajes" filma ikusteko aukera izango dute herritarrek helduen zinema atalean. Sarrera

Interneten 5,30 euro eta bertan 5,90 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 09, 17:00etan

"Tarzan" filma haurren zinema atalean. Euskarazko emanaldia izango da. Sarrera Interneten 3,18 euro eta egunean bertan erosita 3,70 euro.

Ipuin-kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Azaroak 11, 18:00etan

Pello Añorga idazle eta kontalariare-

kin ipuin kontaketa saioa haur liburutegian. 4 eta 5 urteko umeei zuzendutako saioa izango da. Doan. Haurrak bakarrik sartuko dira eta saioa puntual hasiko dela azpimarratzen dute liburutegiko arduradunek. Behin saioa hasita, ezingo da bertara sartu.

Erakusketa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Azaroak 7-21

Patxi Fernandezek akuarelak ikusgai izango dira erakusketa aretoan. Ohiko ordutegian.

Herritarren txokoa

Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota: hamar txirrinda, bi mugikor, bi pultsera, bideo joko bat, monopatina, bi diru zorroa, bateria eta urrunetik gidatutako auto kargatzailea, hortz protesi bat, graduatutako betaurrekoak eta eraztun bat. Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epea dute Udaltzainen Bulegora hurbildu eta jasotzeko, goizez 09:00etatik 13:00etara.

Kromo Aldaketa

Herritar talde bat Okendon igandetan kromo aldaketak egiteko hitzordua egiten hasi da 12:00etatik aurrera. Kromo bildumak osatzeko zaletasuna duten guztiak animatzen dituzte bertara gerturatu eta trukean aritzeko.

Usurbilgo Lanbide Eskola

2014ko ekainean ikasketak amaitu zituzten ikasleek tituluaren eskaera egiteko aplikatiboa martxan dago eta epe laburrean eskolatik pasa behar

dute. Bestalde, 2013an titulua eskatu zutenek hau jasotzera pasa daitezke.

Txintzarri banaketa

Datozen asteetan aldizkariaren banaketan hainbat aldaketa egingo ditugu. Hauek egin bitartean, gerta daitezke aldizkaria etxean ohiko ordutegian ez jasotzea. Hau gertatzen bada eskertuko genizuke gurekin harremanetan jartzea.

63an jaiotakoen afaria

Kaixo 63an jaiotako guztiak! Aurten ere afaria egitekotan garelako jakinarazi nahi dizuegu. Azaroaren 22an izango da afaria, oraingo honetan Abenden gaueko 21:00etatik aurrera. Aurrez, 20:00etan Okendo plazan elkartzeko asmoa daukagu pote batzuk hartzeko. Aurten ere menuaren prezioa 36 eurotako izango da. Joan nahi duzuenok dirua Laboral-Kutxako ES24 3035 0036 1003 61134420 kontu korrontean sar dezakezue. Harremanetarako telefonoak: 696 914 566 edo 657 770 318. Anima zaitezte!

Hemeroteka

Duela 1132 ale

1996ko azaroaren 22an Behobia-Donostia lasterketan parte hartu zuten herritarren zerrenda eta denborak argitaratu zituen TXINTXARRI-K.

Orduan 78 herritarrek parte hartu zuten, horietatik 4 emakumeak izan ziren. Aurtengo edizioa azaroaren 9an izango da eta 239 herritarrek dute izena emanda. Azken urteetako kopururik handiena. Lehenengo herritarra 1997ko Behobian Jose Luis Ugidos izan zen eta 1:13ko denboran bukatu zuen ibilbidea. Lasarte-Oria Bai! kros herrikoia ere egin zen aste batzuk lehenago eta herriko lasterkarientzat indarrak nola zituzten ikusteko proba ona izan zela aipatzen zuten. Lasarte Kirolak dendak sariak eman zizkien sailkatutako lehenengo herritarrei.

78 lasarte-oriar Behobia-Donostia lasterketan

Behobia-Donostia lasterketa aurretik prestatzeko aukerarik izan ez duten ezin esango dute herriko ordezkariak. Euskararen IV. Maratona zela eta, Ostadar K. F. k antolatuta zuten I. Kros Herrikoia indarrak nola zuden ikusteko proba egokia izan da. Behobia-Donostia lasterketa 78 herritarrek amaitu zuten eta batzuk oso denbora ona egin zuten. Halere, denbora egiteaz gain, umore ederrean bukatu eta egun osoan ospatu zuten herritarrek ere izan ziren tartean. Hona hemen partehatzzaileen sailkapenak eta denbora eta Lasarte Kirolak lehen sailkatuei emandako sariak.

Sailkapena	Denbora	Sailkapena	Denbora
153	1:13:20	344	1:55:18
221	1:14:40	345	1:55:18
156	1:17:05	354	1:56:18
48	1:20:15	354	1:56:18
804	1:21:31	4075	1:56:35
918	1:21:34	4103	1:56:41
906	1:22:17	4154	1:57:50
1050	1:23:00	4399	1:57:55
1022	1:23:12	4446	1:58:09
158	1:24:15	4474	1:58:16
1190	1:24:58	4652	1:58:50
1348	1:25:35	4702	1:59:01
1522	1:26:38	5203	1:59:11
1569	1:26:50	5418	1:59:16
1693	1:27:25	5513	1:59:16
1620	1:27:24	5849	1:59:16
1634	1:27:31	5849	1:59:16
1750	1:27:49	5893	1:59:16
1750	1:27:51	5991	1:59:16
1880	1:28:32	6128	1:59:16
1992	1:29:07	6148	1:59:16
2042	1:29:20	6157	1:59:16
2123	1:29:53	6259	1:59:16
2142	1:29:54	6395	1:59:16
2146	1:29:55	6418	1:59:16
2340	1:30:55	6428	1:59:16
2391	1:31:12	6486	1:59:16
2425	1:31:21	6715	1:59:16
2426	1:31:21	7017	1:59:16
2448	1:31:21	7109	1:59:16
2464	1:31:39	7110	1:59:16
2535	1:33:44	7520	1:59:16
2890	1:33:44	7521	1:59:16
2940	1:33:58	7847	1:59:16
2964	1:34:05	7900	1:59:16
3076	1:34:52	8095	1:59:16
3102	1:34:58	8095	1:59:16
3161	1:35:15	8192	1:59:16
3161	1:35:15	8192	1:59:16
3410	1:35:53	8460	1:59:16
3410	1:35:53	8460	1:59:16
3415	1:35:55	9003	1:59:16



Jose Luis eta Maite herritarrek jasotzen dituzten Lasarte Kirolak sariak.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.info

Jokin Ayerregaray Kazetaria eta moda blogaria

"Arropa konbinatzen jakitea da gakoa"

Diario Vascoren bigarren moda blog lehiaketa irabazi zuen Ttalaka.org-n duen blogarekin

Proiektu ezberdinetan murgiltzea gustuko du Jokin Ayerregaray lasarteoriatar gazteak. Euskontu.com eta Ttalaka.org atarien sortzailea da. Azken honen baitan, modari buruzko bloga idazten du eta berriki Diario Vascoren antolatutako mota honetako blogen lehiaketa irabazi zuen. Euskaraz modaren inguruan ezer gutxi egiten dela iritzita, euskal komunitatean modak bere lekua duela erakutsi nahi du.

Maidar AZURMENDI

Aurpegi ezaguna da herri-tar askorentzat Jokinenena. Herrian hainbat ekimenetan ikusi ahal izan dugu. Moda mundua zaletasuna du aspalditik eta interneten zabalduak Ttalaka atari kulturallean, modari tarte bat egin nahi izan dio.

Diario Vascoren antolatutako moda blog lehiaketa irabazi zuen eta Madrilan izan zen Mercedes Benz Fashion week-ean tendentziak bertatik bertara ezagutzen.

Noiztik interesatu zaizu moda?

Modarekiko zaletasuna 12 urterekin hasi zitzaidan. Arrebarekin batera dendak ikustera joaten hasi nintzen eta harra barruan sartu zitzaidala esan daiteke. Orduan janzten nuen arduratzen hasi nintzen. Lehen nahiko baldarra nintzen janzten, ez nion atentziorik jartzen arropari.

Orain moda blog pila dago...

Moda blogari asko dago bai. Harri bat altxa eta ehunka ateratzen dira. Moda blogak edo ego blogerrak ugaritu egin dira azken boladan. Ego blogerrak dira egunero zer janzten duten blog batean jasotzen dutenak.

Nire kasuan, modaren inguruan idazten irakurtzearen hasi nintzen duela urte asko. Ttalaka.org proiektua sortzean,

ikusi nuen moda blog bat beharrezkoa zela. Euskaraz gai hau ia ez da lantzen eta bere lekua behar zuela iritzita, horren aldeko apustua egin nuen. Ondoren, DVK antolatutako lehiaketara aurkeztearena etorri zen.

Harrera ona du blogak?

Datuak ez begiratu saiatzen naiz. Lagunak ditut egunero bisita kopurarekin bueltak dabilzanak, baina nik ez dut gerra horietan sartu nahi.

Afizioz egiten dut nik bloga, badakit bisita asko ditudala eta egunero euskaraz hitz egiten ez duen jendea nire bloga irakurtzera sartzeko. Hori oso pozgarria da niretzat.

Zergatik euskaraz?

Naturalki euskaraz idaztea ateratzen zait baina pentsatuta izan zen bai, erabaki kontzientea. Nik euskaraz idatzi nahi nuen, iruditu zitzaidan gai honen inguruan aritzeko euskaraz ez zegoela aukerarik eta nik apustua egin nuen. Jendeak dio irisgarritasuna murriztu dudala baina besteengandik bereizteko ere balio dit.

Madrilen Mercedes Benz fashion week-ean egon zara, nolako esperientzia izan da?

Lehenengo aldia izan da niretzat han eta esperientzia interesgarria iruditu zait. Hala ere, gauza positibo asko baina baita negatiboak ere ezagutzeko

aukera izan dut. Moda mundua oso friboloa da eta estereotipo asko dago. Uste nuen hauetakoren bat faltsua izango zela baina zoritxarrez, horrela direla ziurtatu dut.

Esaterako, nik nahiko estilo pertsonala daukat. Saiatzen naiz joerak goitik behera ez jarraitzen eta aldiz, halako moda ekitaldietan, ikusten duzu jendeak manikiak bezala, joerak guztiz jarraitzen dituela.

Ez zait gustatu ikustea, jendea nola bihurtu daitekeen anuntzio bat. Marka batzuekin lotzen da eta hori erabiltzen du soilik.

Halako desfileen jarraipena telebistaz egin edo bertatik bertara, aldea handia da. Esperientzia orokorrean oso polita izan da. Jende pila dago, kazetari, modelo, moda munduko jende garrantzitsua... Moda kazetariak baita bloger ospetsuak ere.

Zeintzuk dira tendentziak?

Ikusi ditudan desfileak, datoren udaberri-uda sasoirako proposamenak dira. Tendentzia bezala mantenduko dira loreak, itsasoko estanpatuak eta plataformadun sandaliak esaterako. Koloreei dagokionean aldaketa badago, kolore furtibagoak aurkeztu zituzten diseinatzaileek. Kolore indartsuak kontrastean kolore hautsezatuak deritzonekin.

Nik joera aldaketa nabarmenagoa espero nuen baina dirudienez, ez da hala izango.

Ondo janzteko diru asko behar al da?

Ez, arropa konbinatzen jakitea da gakoetako bat. Nik low cost modaren alde egiten dut beti. Zara, Armani edo Lasarte-Oriako denda batean eros dezakezunarekin, oso dotore joan zaitezke, estiloso, ez du

zertan markak edo diruak garrantzia izan behar janzterako orduan.

Bigarren eskuko arropa dendak ugaritzen hasi dira gurean. Aukera ona dira?

Ni bigarren eskuko arropa dendan oso zalea naiz. Urteetan Londresera joan izan naiz halakoetan arropa erostera.

Hala ere, etxean arropa gordetzeko ohitura dugu eta nik adibidez, nire aitaren arropa berriz erabili izan dut. Moda ziklikoa da eta guztia, hamar urteren buruan edo, bueltatu egiten da. Gure gurasoen garaiko arropa asko oso modan dago egun.

Bestalde, denda hauen beste abantaila bat da arropa eskusiboagoa lortu daitekeela eta askotan askoz merkeagoa. Candemen erositako Bigarren mundu gerrako txaketa bat dut nik. Askok gustatzen zait, apurtzailea da eta gainera, historia propioa du.

Euskal Herrian Santi Auzmendik esaten zuen ez ginea oso ondo janzten. Zer uste duzu?

Orokorrean Euskal Herrian ez gara oso ausartak janzteko garaian. Ausartak garenak oso ohituta gaude kalean jendea begira geratzea...

Oso estilo markatua dugu, oso antzeko janzten da hemen, batez ere Gipuzkoan. Donostiako dotoretasanari lotuta doala esango nuke. Eroso sentitzen gara estilo klasiko horretan eta mantendu egin gara. Orain apurtzailea izateko aukera gehiago dago eta jendea aldatzera animatuko nuke.

Proiektu berrietan sartzea gustuko duzu? Ttalaka, Euskontu...

Bai. Euskalgintzak buelta bat behar zuela argi genuen, gazteak sarean mugitzen gara baina kulturaren inguruan gehiegi ez genuen aurkitzen. Horrela izanda, elkarte bat sortu eta proiektuak lantzen hasi ginuen.

Euskontu.com sortu genuen lehenengo. Euskaraz kontsumitzea bermatzen zuen plataforma. Asmoa izan da, euskaraz lan egiten duten enpresa horiei sarean presentzia bat eman eta euren artean, harremanak sortzea.

Bestetik, webgune kulturala da Ttalaka.org. Gastronomía, moda, antzerkia, astero kultua arloko pertsona ezagun bat elkarrizketatzen dugu eta erreportajeak egiten ditugu. Oso polita da ikustea egitasmoak izan duen harrera. Hasieratik jendearen proposamenak jaso ditugu. Erakusleho garrantzitsuak dira bi atariak euskaraz egiten den kulturarentzat.

Kazetari bezala medio desberdinetan kolaboratzen hasi naiz. Ttalakan ere asmo berriak ditugu eta egiteko intentziorik ez dut.



PRODUKTU BERRIAK

Ile tratatzeko produktu erabat naturalak

AZAROAn
asteartetik ostegunera
gure ZERBITZU
GUZTietan

**%5eko deskontua +
ile-tratamendu birsortzaileak**

Hitzordua aurrez eskatuta
Moztu eta ekarri kupoia hau